



AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO BABES-ZIBILEKO BOLONDRES TALDEAREN ARAUDIA

I. ATALBURUA ERABAKI OROKORRAK

1. artikulua.- Sorrera

Amorebieta-Etxanoko Babes Zibileko Bolondres Taldea sortu da, Alkate-Lehendakari Jaunaren agintepean. Talde hori Amorebieta-Etxanoko Udaleko Babes-Zibil eta Ingurugiro Ordezkaritzan sartuta dago. Bere kideak, Araudi hau eta bere indarrez eman daitezen arau eta adierazpenen arabera arituko dira.

2. artikulua.- Helburuak

Babes Zibileko Bolondres Taldeak bi helburu nagusi ditu:

- a) Beren buruak trebatzeko, beren segurtasunerako, edo, halagg behar izanez gero, urkoari ahalik eta gehien lagundu ahal izateko, Babes Zibilaren alorrean murgildu nahi duten pertsonen ekimenak bideratzea.
- b) Babes Zibileko Udal Zerbitzuen eraginkortasuna areagotzea, bolondresen laguntzaz eta larrialdietan eraginkorki lagundu ahal izateko bolondresen gutxienezko prestakuntza eta trebakuntzaz.

3. artikulua.- Zereginak

Babes Zibileko Bolondresen zeregin nagusiak hauexek dira:

- a) Pertsona edo ondasunei kalteak sortaraz diezazkieketen arriskuak aurrikusteko edo gutxitzeko lanetan laguntzea; edota istripu, katastrofe edo hondamendi egoeran, eragindakoei laguntza edo sorospena emateko lanetan parte hartzea.
- b) Katastrofe edo hondamendi egoeran Babes Zibileko Bolondres izan ez arren bere laguntza eman nahi dutenen iharduketa koordinatzea, hala behar izanez gero.

4. artikulua.- Administrazioarekiko harremana

Babes-Zibileko Bolondresen Amorebieta-Etxanoko Udalarekiko duten harremana, zerbitzu-emaketa dohain eta interes gabekoa da, solidaritate eta elkarlaguntasunean oinarritua; ez du erakarriko lan-itunerik, ezta administrazio edo epailaritzaz bidezko inolako hitzarmenik, ez orain ezta etorkizunean ere. Babes Zibileko Bolondresen Taldean sartzeko izena ematen duenak, onartu egiten du bete-betean artikulua honetan xedatutakoa.

5. artikulua.- Eskatzen dena

Babes Zibileko Bolondres izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

- a) 18 urtetik gorakoa izatea.
- b) Amorebieta-Etxanoko Udalean bizi izatea.
- c) Gaitasun frogak eta prestakuntza eta trebakuntza zikloa gainditzea.

6. artikulua

Babes Zibileko Bolondres izan nahi dutenek, eskaera-idazkia aurkeztu beharko dute Amorebieta-Etxanoko Udaleko Erregistro Nagusian. Eskaera-idazki horrekin batera, ondorengo aurkeztu beharko dute: eskatuko zaizkien lanen burutzapena galerazoko dien zigor-legezko auzian sartuta ez daudelako aitortpena; indarrean dauden lege eta arauak beteko dituztelako aitortpena; eta Araudi honetan xedatutakoa bete-betean onartzen dutelako aitortpena.

7. artikulua.- Laguntzaileak

Aurreko artikuluan esandakoa gorabehera, egoera berezietan edo aholkuak eman, hezi, sorospen tekniko eskaini edo antzeko beste lan batzutarako, laguntzaile gisa sartu ahal izango

dira Babes Zibileko Bolondresen Taldean, beren esperientzia eta gaitasunagatik laguntza espezifikoa eman dezaketen guztiak.

II. ATALBURUA ANTOLAKETA

8. artikulua

Babes Zibileko Bolondres Taldea babes zibileko zerbitzuen Udal Alorrean sartuko da egituraz eta ihardunez, eta dituen eskuartekoen arabera antolatuko da, atalburu honetan ematen diren erizpideei jarraiki.

9. artikulua

Bolondresek, zerbitzuan daudenean, bolondres-txartela eramango dute arauzko soinekoan.

10. artikulua

Babes Zibileko Zerbitzuak Araudi hau aplikatu eta garatzeko, eta bolondres eta laguntzaileen iharduera araupetzeko beharrezkoak izan daitezzen oharpide orokor eta espezifikoko guztiak emango dizkio Babes Zibileko Arduradunari, onar ditzan. Lehenengo eta behin, honako gai hauei buruzko Oharpede Orokorrak onartuko dira: jazkiak eta ekipoa, bereizgarrien ezaugarri espezifikokoak eta horien erabilera, gaitasun frogak, heziketa eta trebakuntza zikloak, eta bolondres eta laguntzaileen izendapena.

11. artikulua

Ahalmena ematen zaio babes zibileko arduradunari Araudi hau onartu ondoko hiru urteetan urtero, eta, horiek igarota, bi urtero, honetaz erabakitzeko: gehienezko bolondres kopurua; bolondres taldean sartzeko eta bertan egoteko gehienezko adina; zenbat denboran izan daitezkeen bolondres; eta Babes Zibileko Zerbitzuarekiko herritarren erantzuna, Zerbitzuaren aurrekontu-erabilgarritasuna eta Zerbitzuaren beharizan nagusien arabera, Taldearen ihardunerako beharrezkoak izan daitezzen pareko beste gaietaz ere erabaki ahal izango du babes zibileko arduradunak.

III. ATALBURUA PRESTAKUNTZA

12. artikulua

Prestakuntzaren helburuak hauexek dira:

- a) Babes Zibileko Bolondresgaiei zerbitzuarekin zerikusia duten ezaguera oinarritzkoak ematea; egokienak hautatzea eta trebatzea, eraginkorki lan egiteko moduan daudelarik sartzeko dagokien iharduketa unitatean.
- b) Bolondresa dela medio, Autobabes zibilaren ezaguerak heleraztea Amorebieta-Etxanoko herritar guztiei, batez ere ikastetxeetako ikasle guztiei.

13. artikulua

Aipaturiko helburuak lortzeko, Babes Zibileko Udal Zerbitzuak honako iharduera hauek burutuko ditu:

- a) Bolondres izateko izena eman dutenak prestatzea eta trebatzea.
- b) Horien prestakuntza eta trebaketa hobetzeko eta prestakuntza eta trebaketarako aldikako deialdiak egiteko, ikastaro monografikoak, hitzaldiak, praktikak eta bestelako ekitaldi batzuk antolatzea.
- c) Zerbitzua egokiro burutzeko beharrezko informazio eta dokumentazioa jasotzea, sailkatzea eta artxibatzea.
- d) Babes Zibilarentzat interesa duten beste erakunde eta pertsonekin harremana izatea.
- e) Bolondresentzako liburuak argitaratzea, baita herritarrentzako gomendio-liburuak ere, esate baterako larrialdietako arrisku-faktoreak eta horien aurreko portaerari buruzkoak.
- f) Aurreko artikuluan adierazitako helburuak lortzeko balia-garriak izan daitezzen beharrezko guztiak.

IV. ATALBURUA ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

14. artikulua

Babes Zibileko Bolondresek Zerbitzuko ezaugarri eta ekipo guztiak erabiltzeko eskubidea dute; baita parte hartzeko eskatzen zaien ekintza guztietan, dagokien kategoriako ezaugarrial erabiltzekoa ere. Derrigorrezkoa izango da ezaugarriok aldean eramatea parte- hartze berezietan, ezbehar edo hondamendi egoeretan, jendeak ezagutu ditzan.

15. artikulua

Eskubidea dute Amorebieta-Etxanoko Udaleko Babes-Zibileko Ordezkaritari eskaerak, iradokizunak eta jazarpenak zuzenean aurkezteko, idazkia aurkezten dutenetik 20 eguneko epean erantzunik jasotzen ez badute.

16. artikulua

Beren ihardunean istripuak gerta dakizkiekeenez, Babes Zibileko Bolondres Taldeko kideek istripu-asegurua edukiko dute. Aseguru horretan ondorengoengatik kalte-ordainak sartuko dira: ezintasun-fisiko, aldibaterako edo behin-betiko elbarritasun, heriotze eta osagile-botikako sorospengatikoa.

17. artikulua

Babes Zibileko Bolondresek araudian ezarritako eginbeharrak bete behar dituzte; gutxienez 60 prestakuntza eta lan ordu bete behar dituzte urtero; 150 ordu urteko egon behar dute gutxienez Udaleko babes zibileko zerbitzuen esku; eta ahalik eta interes, disziplina eta elkarlaguntza ispiritu haundienaz parte hartu behar dute kaltetuak sorotsi, lagundu eta erreskatatzeko edozein operaziotan, eta pertsona eta ondasunak babestu, zaindu, sorotsi eta ebakutzeko operazioetan ere.

18. artikulua

Katastrofea gertatuz gero edo larrialdi egoeran, bolondresa ahalik eta arinen aurkeztu beharko da esaten zaien biltze-gunean.

19. artikulua

Babes Zibileko Bolondres izateak, Araudi honetan adierazitako iharduerak burutzeko besterik ez du gaitzean. Bolondresak ezin izango du Babes Zibileko Taldean babestu edo hura, bere tegiak edo ekipoak erabili, iharduera pertsonal, erlijioso, politiko, sindikal edo bestelakorik burutzeko.

20. artikulua

Bolondres edo laguntzaileak ezin izango du Babes Zibileko kide gisa jokatu zerbitzu-lanetik kanpo. Horrek ez du esan nahi bere ezagupen eta esperientziaz baliaturik, bere kabuz eta bere herritartasunak bultzaturik, lagun ezin dezakekeenik hala dagokionean.

21. artikulua

Babes Zibileko Zerbitzuetako kide izateak ez dio ematen bolondresari Udalari ordainik eskatzeko eskubiderik, araudi honetako 16. art.an ezarritako kalte-ordain eta laguntzak salbu. Beren lana dohan egingo du, eta eskatzen zaion lana burutzeko sortzen zaizkion ustegabeko eta ezinbesteko gastuak besterik ez zaizkio ordainduko.

22. artikulua

Bolondresak ongi, erabiltzeko moduko egoeran, edukiko ditu eman dakion material eta ekipoa. Txarto zaindu edo gaizki erabiltzeagatik egin diezazkien kalteak berak ordaindu beharko ditu.

V. ATALBURUA SARIAK ETA ISUNAK

23. artikulua

Bolondresek merezi ditzaten sari eta isunak behar bezala baloratuko dira. Horretarako, Babes Zibileko Arduradunak sari eta isunen oinarritzko eskala bat onartuko du, eta eskala hori ezartzerakoan, kontutan hartuko du beti ekintza sarigarri edo zigorgarrian eman diren baldintzak. Bolondresari jar dakizkion sari edo isunak, bere espediente pertsonalean erasota utziko dira.

24. artikulua

Babes Zibileko Bolondresak aurrikuspen, parte hartze edo zerbitzu-emate ekintzetan egin ditzaten merituzko egintza, iharduera nabarmen edo aipagarri, egintza laudagarri edo adorezkoek saria jasoko dute, baita Udaleko Babes Zibileko arduradunak, edo, hark eskatuta, Udalak idatziz emango dizkien esker oneko idazki bat ere.

25. artikulua

Sari bereziak jarriko dira ezohizko eskertzea merezi duten aparteko egintzak saritzeko. Sari horiek, kasuan kasu, Alkate-Lehendakariak edo Osoko Bilkurak emango ditu.

26. artikulua

Bolondresak egin ditzaten hutsak honelaxe sailkatuko dira: txikiak, larriak eta oso larriak. Huts horiek araudi honetan xedatutakoaren arabera zigortuko dira. Zigorra jarri aurretik, interesatuarekin hitzegin beharko da beti.

27. artikulua

Honako hauek izango dira huts txikiak:

- a) Pertsona edo ondasunei arriskua sortaraz diezazkieketen gertaera edo egintzen berri ez ematea beren Nagusi edo Agintariei.
- b) Parte hartzen duten misioen burutzapenean beren kontura duten materialen iraunerazte eta mantenuaren utzikeria. Hutsegite txikiak oharraz edo bolondres izaera gehienez hilabetean galerazirik zigortuko dira.

28. artikulua

Huts larriak hauexek izango dira:

- a) Uko egitea agindutako misioak burutzeari.
 - b) Zerbitzuko egintzetatik kanpo erabiltzea Babes Zibileko ekipoa, material eta ezaugarriak.
 - c) Beren kontura edo zaindaritzapean dagoen Zerbitzuko ekipo, material, ondasun eta agiriak nahita narraiatzea, galtzea edo lapurtzea.
 - d) Araudi honetan xedatutakoa ez egitea edo haustea, batez ere 19. art.ari dagokionez, ondorio larriak izango baditu eta horiek hutsegite oso larrien artean sartuta ez badaude.
 - e) Hiru huts txiki edo gehiago egitea.
- Hutsegite larriak bolondres izaera hilabete baino gehiago eta sei baino gutxiago kenduta zigortuko dira.

29. artikulua

Huts oso larriak ondorengoak izango dira:

- a) Zerbitzuko eginkizunak betetzeari uztea, egiaztatutako arrazoirik gabe.
 - b) Huts larriak egin izanagatik, behin eta berriro zigortua izana.mm
 - c) Lege-haustea egin duelako epailarritza-erabaki bidez zigortua izana. Ez dira kontutan hartuko zirkulazio istripuengatik zigorrak.
 - d) Zerbitzutik kanpo zerbitzuko ezaugarriak erabiltzea edo erakustea, egiaztatutako arrazoirik gabe.
 - e) Beste bolondres bat, nagusi edo agintariren bat hitzez edo egitez erasotzea, eta bete behar den misioa eragin dezan desobedientzia.
 - f) Jar dakizkion bolondres izaeraren kentze zigorrak bete nahi ez izatea.
 - g) Parte hartzen duten larrialdi, istripu edo beste edozeren ondorioak areagotu ditzaketen jokabide zabar edo ausarkeriaz beterikoak.
- Hutsegite oso larriak Babes Zibileko Bolondres izaera behin-betiko kenduta zigortuko dira.

VI. ATALBURUA BOLONDRES IZAERA GALTZEA ETA KENTZEA

30. artikulua

Bolondres izaera aldi batez galduko dute, egiaztatutako arrazoia dutelarik eta doakionari jakinerazi eta gero, hiru hilabete baino gutxiagoko aldi batez Zerbitzuan egongo ez direnak. Era berean, bolondres izaera aldi batez galdu ahal izango dute Zerbitzu Militarerra joan, haurdun egon edo jaioberria zaindu behar izanagatik, Zerbitzua bete ezin dezaketenek.

31. artikulua

Babes Zibileko Bolondres izaera honako kasu hauetan kenduko da:

- a) Interesatuak behin-betiko baja eskatzen badu.
- b) Hutsegite oso larria egin izanagatik zigorraren ondorioz.
- c) Hiru hilabete baino gehiagoz Zerbitzuan aurkeztu ez izanagatik, inolako arrazoirik gabe. Kasu honetan, ezer erabaki aurretik, interesatuarekin hitz egingo da.
- d) 13. art.an xedatutakoari jarraiki ezar daitezten baldintzak ez betetzeagatik. Kasu horietan, bolondres edo laguntzaileak bere dokumentazioa eta abar Babes Zibileko Zerbitzuari emango dio berehala. Hark, hala badagokio, emandako zerbitzuen egiaztagiria luzatuko dio interesatuari.

Amorebieta-Etxano, 1994ko urriaren 18an.-Alkatea, Alberto Gurtubai Arregi